

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anizeta Agirre Elkoroiturbe
Bergara, Gipuzkoa
(1888-1992)

Aurkibidea



Biografia



1888an Osintxuko Laudatz baserrian jaioa. Handik, Ola baserrira joan zen bizi izatera eta hamar urterekin auzo berean dagoen Galartza baserrira joan zen neskame. Han urte batzuk pasatu ondoren, Bilbora joan zen orduan ere neskame, Jose Felix Lekerika, gerora NBeko enbaxadore izango zenaren etxera. Osintxura bueltatu zenean, ezkondu egin zen eta handik bi urtera alargun gelditu zen. Berriz ere ezkondu eta kalean, Tejerokuan, bizi izan zen denboralditxo batez. Gero Bolu baserria erosi eta bertan bizi izan zen hil arte.

Zintak

BER-060

- **Proiektua:** Bergarako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1985-03-26
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione - Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Bergarako Udala

Pasarteak

1. Umetan neskame joan zen

- **Erref:** BER-060/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:01:51. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Umetan neskame joan zen, arratsaldetan eskolara joateko baldintzarekin. Baserrietan lan asko egoten zen. Jatorduak: lehen platera gaztaina izaten zen; orduan ez zen ia patatarik sartzen. Ehunezko arropa.</p>

Transkripzioa

- Esan kriada nun egon ziñan aurretik...
- Kriara bai oixe, kriara eon nintzan ni Azkortan, Azkortan giñuan aittan arrebia, giñuan Azkorta-Erdikuan, Rikardon da ama, antxe zortzi urterako, atsaldetan eskolara bialtzeko kondiziñuakiñ...
- Atsaldetan eskolara, eta eskolaik ikasi ziñuañ?

- Bai, leiru ta eskribiru eitten giñuan, ta kuentak etaratzen be bai; ori lenengo etaratzen dan ori zela da ba?

- Sumarra.

- Sumarra bai.

- Orduan zortzi urtekin kriada jun ziñan Azkortara?

- Bai-bai. Gero amar urtekin komuniua eiñ, da Galartzara, umezaiñ. Basarrixan eoten zan orduan lana, ura danian urriñ, da ganau zaintzia, ittulia, gaztaiña zuritzen berriz e, ukatzeko laiñ; orduko primer platua gaztaiña zan; oiñ e, patataik ezan sartu be eitten orduan da, ortuan bi iru zulo idar barrixekin jateko, ta se akabó, dana gaztaiña. An urtian bost duro irabazten nittuan...

- Orduan tripa-truk bakarrik etzan...

- Bai, ta zeoze jaztekua be bai, kamixia ero; orduan eunezko erropia ibiltte zan...

2. Ehungintza. Lihoari buruzko azalpenak

- **Erref:** BER-060/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ehuna. Etxean egiten zen haria. Prozesua: kurrua irun; goruetan egin; haria, matazak egin. Osintxun egiten zen ehuna. Lixiba. Lihoa (linua) etxean ereiten zen. Liho-soroaren kolorea, urdin-urdina.

Transkripzioa

- Eta ehuna etxian eitten zan?

- Hilari: aber, ehunan kontua esan, ama.

- Bai, ehuna... etxian eitten zan harixa. Kerrua irun esaten jakon, goruan ipini ta sartu gerrixan ta ardatzakin harixa ein; ta gero arilddu esaten jakon ta matazak ein. Ta gero tejerua hor zeuen. Osintxun eitten zan ehuna, Tejerokuen. Ta ehun piezie ein ta gero lixibia eitten zan ta zurittu. Jesus! Ta liñua be etxien hartzen zan... Bai, liñua erein ta liñuak loria ederra eukitzen dau e, anillan kolorekua, dana berdin-berdin, ustez itsasua dala...

3. Aitajaunaren jatorria

- **Erref:** BER-060/010
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:05:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Aitajaunaren jatorria. Amandrea.

4. Lihoa ereitetik haria egitera

- **Erref:** BER-060/011
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:07:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Lihoa (linua) zelakoa zen. Liho-hazia (linazia), beste edozein hazi bezalaxe ereiten zen. Ez zen ebakitzen, atera baizik. Sorta txikiak egin, lotu eta ihartu egin behar izaten ziren zelaian zabaldua. Batu, labean berotu eta trangatik pasatu. Ardatzean egiten zen haria. Negu guztia lihoa iruten egoten ziren eta erronda galantak egiten ziren.</p>

Transkripzioa

[...]

- H: Honek diñue, ama, ze izeten zan liñua, liñua, tela hori eitteko.
- Bai, liñua erein eitten zan, beste edozein hazi bezelaxe. Liñazixa oin be botikan egongo da. Liñazixa, enplastuak-eta eitteko-ta hartzen zan lehen. Ta liñazixa erein, ta liñua lastua bezelaxe batzen zan, etara eitten zan gaiñera, ebai ez. Etara eitten zan; oso sustar...
- Sustarretik...?
- Sustar txiki-txikixa eukitzen dau liñuak, [utxa], ta berdin berdin-berdiña... [...]
- Eta gero zela eitten zan liñua?
- Gero, ba, sorta txiki batzuk eitten zien, ta harek sortak, zertu, lotu, berakin, beran zerakin, bedarrakin berakin, ta igertzen eukitzen zien kanpuen, zelaixen zabaldua. Gero handik batu ta labien berotu, ta trangia esaten jakon, hola mihiña barrura sartzen jakon zer bat, astuak esaten jate, ba, zerak... Ta han, labian berotu ta kaskaria kentzen jakon, ta liñua ikusiko ziñuen iñoiz, zerera, itturrixa ipinttera datozenak-eta ebalten dabe ba liñua...
- Hori hari gogor hori...
- A! Hori da?
- Bai.
- Hori da liñua?
- Liñua, liñua, bai.
- Espartzu tipoko...
- Ta harekin eitten da harixa.
- Baiña oin espartzua modukua ibiltzen dabe, ama. Oin espartzuan moduko gauza bat ibiltzen dabe. Lehen ibiliko zan liñuoi.
- Lehenao. Bai. Ondio urte asko ez dala be bai liñua ebalten eben. Gero harekin harixa eitten da, ardatzien. Orduen erronda galantak eitten zien. Negu guztia liñua iruten, irun esaten jakon. Ta juntau andra mordua ta... gero gabien errondia.

5. Lihoa eta artilea

- **Erref:** BER-060/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Errondak zelakoak izaten ziren. Andrazkoak lihoa (linua) iruten egoten ziren eta inguruko mutilak joaten zitzaizkien. Gorua, ardatza. Batez ere ohe-arropa eta alkandorak egiten ziren lihoarekin. Artilea. Goruetan egiten zen hau ere, baina askoz sendagoa zen. Gizonezkoak txabilan egiten zuten. Prozesua: ardi-ilea garbitu, sikatu, kardarekin fin-fin ipini, irun goruetan. Artilezko galtzak, trapuak. Denbora batean, Elosukoak bertakoak baino argiagoak zirela dio; artilezko jertseekin ikusten zituzten. Beraiek jertserik ez. Hotzak hiltzen neguan.</p>

Transkripzioa

- Errondia zeri esaten jakon?
- Errondia, ba, etorten zien mutillak edo, inguruetako zerak, eta han andrakumiak egoten zien gorutan egonda, liñuori iruten, harixa eitten egonda. Ta, ba, abarketa-zaharka ta esaten jakon...
- Zela esan dozu, goruetan?
- Gorua, bai. Gorua izeten zan, buruakin hola zer bat. Makilla bat, burua... ta han buru hartan [batzen] zan liñua. Ta gero handik ardatzak, ba, harixa ein.
- Orduan, dana, erropia ta dana etxian eingo zan orduan...
- E?
- Erropak eta danak etxian eingo zian orduan...?
- Erropia... [ohi]-erropia ta, alkondarak eta kamixa ta hortakua, gehixena...
- Artillia eta liñua berdinean eitten zian?
- Ez, ez, ez. Artillia da ardixen illia...
- Baiña ein berdinean eitten zien?
- A bai, gorutan eitten zien, baiña artillia senduaua askoz e! Gizonak be bai txabillan; txabillia esaten jakon.
- Txabilla, eta...
- Txabillia da, ez dakizu, hola, umiek-eta...
- Bueltan ibiltzen dana...
- ...gora-gora jaurtitzeko eukitzen dabe, hola, zer bat... hauraxe da txabillia.
- Hemen beste toki batzutan esaten dotse txorakillia, buelta asko emoten dittuelako.
- Bai, bai. Haura, erain eitten jaue ta, erain ta harixa ein beste eskuakin. Lehenengo, ardixan illie garbittu, siketu, kardak esaten jakona, kardiakin zertu, dana fin-fin eindda ipini. Gero, irun esaten jakon, goruetan, ta nahiz txabillan gizonak. Sokak be etxian eitten zittuen, abarken sokak...
- Galtza biharrik apenas egoten zan...
- Galtzak horixe bihera.
- Bai?
- Artilezko galtzak...
- Artilezko galtzak bai, baiña gero trapuak erabiltzen zien...
- A! Trapuak be bai, gizonak bai. Ta denpora hartan, hemenguek baiño abillauak zien Elusuarrek; gizonak artilliekin einddako jertsiekin ikusten zien! Hemen ez zeban esistitzen jertsiek orduen, iñok ez zeukan jertseik, ez andrakumiak ta ez gizakumiak. Jertseik esistidu be ez, hori dok markia e!
- Orduko neguak...

- Nik ez jakixat zela pasatzen eben...
- Hotzak hiltten! Ze, ba? Ta mokuak kentzeko inddar bae eskuak, gogortuta ta. Gero hasi zien tokilla batzuk, doblekuak, ta haura abrigo haundixa izeten zan, tokillia, gerriraiñoko zera. Baiña jertseik iñok be ez, ez zan eitten ta. Ez zan eitten; hemen ez behintzet.

6. Erronda kontuak

- **Erref:** BER-060/013
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Erronda kontuak. Dantzan, kantuan egin. Gabonetan ere auzoko gazteak etxe batean elkartzen ziren.

Transkripzioa

Eta errondan eittia zer zan? Ba fiesta moduan, batzuk kantau ta, beste batzuk dantzan ein dda... Langintza horretan zebitzenian, gero gabian parrandia izango zan... Bai, ta Gabonetan be bai, juntau auzoko danak, auzoko gaztiak, gaztiak, etxe baten, antxe auts galantakiñ...

7. Osintxuko soinujolea

- **Erref:** BER-060/014
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:12:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Osintxuko soinujolea: "Bihurri". Panderoa.

Transkripzioa

Eta dantzan eitteko ta, ze izaten zan, soiñua ero? Soiñua, bai. Osintxun soiñujolia zan Irurri esateotsen bat; azi zan zerien, au Martxiel baakizu, Elizaondo, aren andriak, aren amak aziban, Irurri esateotsen bat; filarmonikia jote eban; ta gero nik eztakitt nora zan aura, sekula geixao nora danik... Ezan etxekua e, errikua ero... Herri-semia? Bai; eta gero zea, Piston esate jakona, zea, Anjel, sakristaua, aura soiñujolia, da bestela panderuakiñ bakarrik, be iguel... Eta ahoko soiñuik? Eta ahoko kittarria? Ez ez ez, filarmonikia bez; eskukua, akordeon.

8. Baserriko andreak inude joaten ziren

- **Erref:** BER-060/015
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:12:03. **Bukatu:** 00:16:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Baserriko andreak inude joaten ziren. Galartzan umea zaintzen urtebete inguru egon zen. Bilbon beste 7-8 urte egin zituen, Lekerikaren etxean (Nazio Batuetan enbaxadore izan zena). Olatik Bilbora joan zenean, erdaraz tutik ere ez zekien.

9. Charlot ezagutu zuen Bilbon

- **Erref:** BER-060/016
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:16:37. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Charlot ezagutu zuen Bilbon. Bilboko kontuak.

10. Osintxutik jendea Plazentziara joaten zen lanera

- **Erref:** BER-060/017
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Osintxu zelakoa zen. Bertako jendea Plazentziako kanoi-fabrikara joaten zen lanera. Hori baino lehenago, Ameriketara. Ahizpa bat Ameriketara.

11. Elizakoak baserri-auzoetan

- **Erref:** BER-060/019
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:25:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Entierruak. Auzo, baserrietatik eskela pasatzen zen. Entierrua, ondraz, bederatziurrenak.</p>

Transkripzioa

- Hilari: Oin entierro ipuiñak eta abisuan kontuak-eta esaixezu, ba, ama... zela izeten zien zuek gaztiak ziñanian...
- Bai, entierrue... Gu gaztiak giñanian, zera, oin ze esaten jako? Hilddakuan zera, diarra eitten zan etxeetara. Porejenplo, Olara diar eitten eben Izarretik edo Olatik Izarrera. Auzuak. Nola daon hilddakua, difuntua, ez dakit nun etxetan. Haura zan eskelie. Ta guriek, Olakuak, uste dot Azkorta Azpikora edo joten ebela diarra. Handik [Olaldera], Olaldeti Muskiritxura eskelioi pasatzen zan.
- Ta ze diar eitten zan?
- Ba, urlixa etxetan... Bueno, porejenplo, ba, Izarrekuak, Bitxurtun baeuen hilddekua, Bitxurtun difuntua daola edo difuntia daola. Ta horixe, besterik ezebez. Hurrengo egunien goizien entierrua. Orduen ez zan atsaldeko entierrorik izeten. Gero onrak berriz...
- Ondrak...
- Handik egun batzutara edo...
- Hilari: bederatziurrena.
- Bederatziurrena aparte. Bederatziurrenera juaten zien auzuak, senidiak, andrakumiak bakarrik.

12. Garraioak: trena, autoa

- **Erref:** BER-060/021
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:26:35. **Bukatu:** 00:28:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Trenbidea, umetatik ezagutu zuen. Lehenengo autoa, Bergarako Untzuetakoek izan zuten. Anekdotak. Suzko-kotxea, beldurgarria zen; oilo-larrua eginda.

Transkripzioa

- Trenbidia izengo zan zu...
- Bai ba, trenbidie, nere akordua baiño lehen.
- Zure akordua baiño lehen izan zan, ezta?
- Ni gaztia nitzanian plantxa barrixak bota zittuen; lehenao estu-estuak zien lehenengo, plantxa estu-estuak, ta gero barrixak ipini zittuen.
- Hilari: Ta autuan ipuiña be esaixezu ba...
- Autua lehelengo hasi zan Untzeta, Bergarako Untzeta... palaziua edo daukana, ez dakizu?
- Unzueta, oin Unzeta...
- Unzeta edo dia horrek, Marques de Unceta. Bueno, harek [ipini] eban autua. Ta auto altua, [orduan] azpittik [ondo] edozein pasatzeko moduko altua. Ta jotzen eban sirenia fabrika haundixak baiño haundixaua! Ta gu bazkaittan bagenden, jaiki danok eta etxe osteko atera haura ikustera, suzko kotxie, juten giñan. Gero ugeldu zien, baiña orduen hauraxe bakarrik hemen. Bilddurtuta, zera, oillo-narrua eindda. Haura zala... bilddurgarria.
- Hilari: Ordurako Olan zenden?
- Bai.

13. Kofradiaren inguruko kontuak

- **Erref:** BER-060/022
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:31:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Kofradiak txandaka egiten ziren. Kalekorik ez zen sartzen. Dantzak non; jaiak noiz. San Martzial. Uholdeen inguruko kontuak entzunda ditu.

Transkripzioa

-Kofraixen arrastoik eta, zela eitten zien orduko Kofraixak eta badaukozu?
-Bai, Kofraixak eitten zien orduan txandan, kalekuak ez eben paatzen bape, ta kalekoik ez zan sartzen, baserrikuak ba txandan, tokatzen jakonak, bi biren artien, ta gero, okelia partiru eitten zan, Artola izaten zan partitzaillia, Plazentziako Artola, harek´e, txuleta zintta bat osua eruate eban bere jornaltzat, ta ez dakiu nun ezkutatzen zien txuletok, ba saldia ta, han okela danak, zenbat kofradeko eren, hainbestetxe pusketa ipintzen zittuen, harek ipintzen zittuen, partiuta, ta gero paau danen artien ta kitto.
-Ta ze fiesta eitten zan, erromeixia ta izango zien?
-Dantzia, dana dantzia.
-Etxe azpitan ezta?
-Etxe azpitan be bai ta, Etxebarriko plazan ta.
-Orduan ez zan eongo Artetxan fabrikaik eta...
-Bai, Artetxek fabrikia ei eban plazan, dantzan eitten zan lekuan, da guri ez oskuen lagatzen juten plazara haundixak, gu gaztetxuauak, goiko petrilletik beira eon biher, ta gero plazia ei eban e, plazan ei eban fabrikia Artetxek, ta han Etxebarriko etxe aurrian ipini eban plazia, lenao, hor etxe azpitan zan plazia, zerien, hortxe fabrikia zan lekuen, zelai desentia.
-Zera, beti Aguztuan ezautu izan dittuzu zuk Kofraixak?
-Bai, Agoztuan azkenengo jaixan.
-Eta zuk entzunda daukazu lenao Abrilian eitten ziela edo Martixan eitten ziela edo?
-Ez, ez dot entzun sekula be ez.
-Eta Osintxuko elizan Santuak urak eruan zittuanik eta entzunik badaukazu?
-Ama, Elizia, San Martzial edo, ze egun zan Osintxuko elizia ta eruen zittuenak, Osintxuko elizia azpikaldien ez zan ba? A bai, San Martxialgoko ur haundixak eruen ebalas esaten dabe, hor "por ejemplo" bolatokixak dauzkan horma horrek, behera dauzkanak elizianak, erun ein ei zeban da, Santo Martirixak Debatik ekarri ei zittuen, Debako plaiatik. San Martzial egun baten zan hori? San Martzialko ufala, guk ez giñuan ezautu. Ez milla zortzirehun ta ez dakit zenbatian, Bergako Santamañan dao markia... Ez zan izango edozein modutako... Ai "qué horror" ta orduantxe elizia erun ei eban ta, gure akorduak eta baiño lenao zien horrek...

14. Mutil eta nesken arteko kontuak baserri giroan

- **Erref:** BER-060/024
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:32:38. **Bukatu:** 00:34:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Gabonetan etxera Bilbotik. Gabon-mina. Mutiletan. Goizean ardiak ateratzera joan eta mutilak sagar paketetxo bat erregalatu zion.

Transkripzioa

- Hor kriaue euenak eruten zittuan etxera, gabon miñera, [bakillau] txiki bat ta etxien einddeko ogi bat. Ta Azkorta Erdikuen, ba, nere aittan arrebia, baiña haren ama be han bizi zan, gizonan ama...
- Hilari: Laudatzen?
- Ez, Azkortan. Etxekoandria, badakizu, zaharra, bi andra zeren ta... Ba, nere izeko horrek, lehen basarrixan ez zebeu sagarrik be sartzen... Azkortan sagarrak ta harek zeoze [bieltzia] nahi nerekin etxera amai ta nik goizien ardixak etaratzera jun biher txabolara ta goizien emon ostan sagar paketetxo bat. Eta ardixek etara ta haura zanga baten orbelakin tapauta itxi naban iluntzien etxerakuan hartzeko. Erregalua.
- Erregalua, gabon miñekua e?
- Bai, ondo kaso eindda gauzak.
- Azkortan nun, erdikuan...?
- Bai, erdikuen. Orduen...
- Hilari: Erdikue zer zeukan, ama, tiuak, ezta? Osabak...
- Erdikue bai, aittan arrebiak. Aittan arrebia, Maria zeban izena. Gazterik hil zan baiña...

15. Ogia zelan egin

- **Erref:** BER-060/028
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:38:37. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak

Laburpena:

<p>Ogia zelan egiten zen. Hazgarria. Ore-mahaia.</p>

Transkripzioa

- Zela eitten zan orduan ogixa? Guk hori ez dou ezautu ta... zela eitten zan ogixa orduan?
- Ba, ogixa eitten zan, ba, hazkarrixa izeten zan. Bueno, hazkarrixa kalia be egoten zan saltzen be...
- Hilari: Bai, gero, ama, aurretik ez!
- Nik ez dakit lehelengo zela zertuko zan... Ogi, hola... Ogi zati bat, masa zati bat isten zan ore-mahai baztarrien iriñakin tapauta, ta haura, handik zortzi egunera harek ogixa harrotzen eban. Haura... harro-harro ein, iriñak eta danak zertuta eukitzen zittuen, harrotuta. Zertu eitten zan, fermentau.
- Hilari: Hazgarrixa.
- Ta haura urtu ta porejenplo, bixar goixian ogixa ein bihar dozu? Gaur gabien haura hazkarrixa ein, masia ein, beste iriñakin ta. Gero goixien

haura masa haura sartu ogixakin ta harek harrotzen eban. Lehelengo ez dakiu zela [sortuko] zan... Zortzi egunian harek balixo izeten eban; zortzi egunian han egoten zan ore-mahai baztarrian iriñakin tapauta. Ta handik zortzi egunera harek fermentau, zertu eitten eban, ogixa harrotu.

16. Ogiak eta gariak duten lana

- **Erref:** BER-060/029
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Baserritarrek gari-aleak eramaten zituzten errotara. Irina eralgi. Galbahea, garia pasatzekoa. Baheak, irina pasatzekoak; setazkoak izaten ziren. Klase bi zeuden: finarekin egin ezkerro, ogi zuri-zuria irteten zen; bestela "basilloria" esaten zitzaion ogia egiten zen. Arto-irina. Gariak zenbat lan duen esaterik ez dago.

Transkripzioa

- Baserrittarrak erak ekartzen zeuben alia, ezta? Garixa, alia...
- Bai, bai.
- Ta gero errotan xehetu [...]
- Bai, bai.
- Ta gero geunkan ganbaran eralgitzeko makiña bat.
- Ze eitteko?
- Iriña eralgitzeko.
- Eralgi?
- Bai. Bahiak izeten zien, ba? Ez dakik? Bahia, holan ri-ri ein ta zela pasatzen...
- Galbahiak...
- Galbahiak. Galbahia bai...
- Galbahia da bat ta bahia beste bat.
- Bahia beste bat...
- Bahia da iriña pasatzekua. Sedazkuak izeten zien lehen. Galbahia da garixa pasatzekua.
- Baiña, ama, [horrez] aurretik zela? Zeatik horrek, bahia, kasik neure akorduan ipini zan gurien... Aurretik galbahiakin pasatzen ziñuen dana?
- Aurretik...? Galbahiakin pasau biharko zan... Ore-mahaixan egoten zan zer bat...
- Ore-mahaixan egoten zan holako...
- Ohol luze bat. Eta hantxe bahiakin...
- Holako makila bat ipini ta [bahia] han, ore-[mahaira].
- Bahiak egoten zien bata bastuaua, bestie fiñaua. Fiñakin ein ezkerro, bi ogi klase eitten zien, [basilloria] esaten jakon bati...
- Zela? Zela?
- Basilloria. Eukitzen eban, ba, zera harek asko... birriña edo...
- Zahixa...
- Bastuaua. Bahe bastuauan pasauta egoten zan ta. Ta bahe fiñian pasau ezkerro, zuri-zurixa ogixa.
- Artua be, arta-iriña be halan pasatzen zan...
- Artiriñana beste bahe bat, diferentia.

- Bai, orduan ogixak emoten eban makiña bat lan! Enee...
- Ogixak ze lan daukan ta garixak esaterik ez da...!
- Ondiokuan zerik ez ta dana eskuz! Dana eskuko lana!
- Errotara bota orduko dana galbahetu bihar garixa!

17. Gari-irin desberdinak

- **Erref:** BER-060/031
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:42:54. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Bahea motorrean ipinita zuten. Lehenengo zahi-zabala botatzen zuen, gero birrina. Hurrengo, gari-pikorra. Irinaren kalitatearen arabera, izen desberdinak: gari-pikorra; gari-fina. Birrina eta zahi-zabala. Irin-fina.</p>

Transkripzioa

- Gero bahia geunkan zerakin ipinita, motorrakin ipinita, bahia. Ta bahiak [geunzkan], lehenengo zahi-zabala botatzen eban...
- Oso kuriosua zan haura...
- Hurrengo birriña ta hurrengo semolia, semolia esaten jakona, pikorra, gero iriña, fiña.
- Zahi-zabala ze izeten zan...?
- Hilari: Zahi-zabala, ba, garixari iriña egindakuan kentzen jakon holako... zahixa. Semola hori... Semolia da, gari-pikorra, ezta? Ta hori dendatan saltzen zan zopia egitteko. Sopa de sémola. Makiña bat bider egin giñuan.
- Oin be bai...
- Oin atzera berriz hasiko da hori seguruasko...Sémola de trigo.
- Oin be apartauko da haura irin fabriketan...
- Semolia ta birriña ta zahi-zabala. Hiru klase, hiru zera klase. Gero irin fiña. Lan ugari badago hor.
- Garixak bai, garixak lan asko.
- Orduan, zahi-zabala eta irin fiña be bai?
- Bai ba.
- Birriña ta gero semolia...
- Lehelengo izaten don zahixa...
- Zahi-zabala... Ta geiñera zahi-zabala...
- [...]... bape pisu bageko... azala. Garixan azala haura. Ta gero...
- Zahi-zabalak txikittu ez deixen [haura]...
- Hori, xehetuta gero urtetzen daben lehelengo gauzia da, ez?
- Hori dok! Errotan pasau ta gero urtetzen dabe. Pasau galbahien ta... Ta gero birriña fiñagua. Ta gero ya iriña.

18. Gariari zahi-zabala zelan kendu

- **Erref:** BER-060/032
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:45:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Zahi-zabala ateratzeko garia ihar-iharra egon behar zen. Lanbroa bota eta umeldu egiten zen, azala (zahi-zabala) osorik irten zedin. Lan asko, gau eta egun.</p>

Transkripzioa

- Eta zahi-zabala [birrintzeko] nun sartzen zan?
- Zahi-zabala etaratzeko, garixa igerra, ezta? Garixa iger-igerra. Ta hola lanbro bat bota ta umeldu egitten zan, zera, azala iriña egin ez dein. Bestela beltza ogixa. Zahi, zera... azala osorik urten deixen, zahi-zabalori. Ta zenbat lan...! Jesus...! Gau ta egun.

19. Errotak eta errota-harriak

- **Erref:** BER-060/033
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:45:03. **Bukatu:** 00:46:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Errotak bi harri zituen. Piketeak. Ebaki txikia egin behar izaten zitzaion piketeari, bestela garia apurtzen zuen. Zortzi egunean behin harria jaso eta pikatu behar izaten zen, irin fina irteteko.</p>

Transkripzioa

- Errotan lana egitteko ze pieza zeren? Piezen izenak esan.
- Errotia, ba, bi harri: bata azpittik, bestia geñetik. Ta harek pikau egin bihar [kontuen-kontuen]. Piketiak aproposak egoten dira ta [kuidado] haundixakin [arraia] haundixa egitten bajako, golpe haundixa emoten bajako, apurtu egitten dau garixa. Ta ebagi txiki-txiki bat egin bihar izeten jako. Pikete harek egitten dabe ebagi oso txikixa, garixa... iriñak fiña urtengo badau. Haura gogor jotzen bada, ba, iriña bastua.
- Lana eukitzen jua harek tamaiñakua harri harek!
- Lana? Ene...! Zortzixan behin jaso ta zertu egin bihar, pikau egin bihar dana.
- Harrixa?
- Harrixa.
- Ene...! Oin akordatzen jatak, haura zuan lana haura! Beti harri pikatzen!
- Bai ba, bestela ez zeban egitten gauza onik eta...

20. Dantza kontuak; erromeria

- **Erref:** BER-060/040
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:54:22. **Bukatu:** 00:55:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Dantza kontuak. Kanpaia entzun eta etxera joan behar, erromeria amaitzen zenean. "Aramaitako" kanpaia. Kanpaien izenak. Neska-laguntzen joaten ziren mutilak.</p>

Transkripzioa

-Ta len ze dibersiño eoten zan gaztien artien ze...

-Esaixozu ama, sakristauak soiñua jo...

- Bai, ta dantzan ein, da angelusa illuntzien jotzen ebanian, laga daon lekuan ta etxea danok, daona daon lekuan itxi ta etxea. Aramaitakua, Aramaitakua izaten zuan illuntzien, goizien eguna argitze zan denporan, gero eguardixen ta gero illuntzien illunkaran. Beratzi kanpanada hirunan illuntzien harek goizao jotzen baeban gure erromeixia "se acabó". Sakristauan gorabera erromeixia. Sakristaua hasarre bazeuan... Harek sasoez jo ta honek aide... Jai egunetan ta... Ta esaten jua mutillen batekin juaten bazien hango... ze esaten ziñuen ama, mutillen batek laguntzen bazotsuen etxien hango argixa ta txakur zaunkia ta... A bai baiña, gu ez giñen geratu be eitten trenbideraiño ta trenbirian bueno, ondoloin ta akabo, yasta, ezta momentu baten be, urrian, Ola baakizu urrian ta, sarri izaten giñuan bateon bat laguna, baiña ez giñun denpora asko eitten kanpuen.

21. Osintxuko erromeria

- **Erref:** BER-060/041
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:55:46. **Bukatu:** 00:56:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Osintxuko erromeriak izen handia izan zuen sasoi batean.</p>

Transkripzioa

- Osintxuko erromeixia famaia zan ezta?

- Bai gero baiña....

- Bai sasoe baten....

- Gero baiña, gu gaztiak giñanian....

- Altos Hornos aldetik etorte zien mordo bat, erromeixia haundixa....

- Gerra ondorian eon zan hemen...

- Erromeixa haundixa eitte zan Osintxun haundixa....

- Erromeixia baiña zelakua baiña haura izate zuan poza!

22. Antzinako bizimodua baserritarren ikuspuntutik

- **Erref:** BER-060/042

- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:56:08. **Bukatu:** 00:56:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Antzinako bizimodua. Konfiantza handia zegoen elkarren artean. Hutsarekin barre handiak egiten zituzten, kantuan egun osoan...</p>

Transkripzioa

- Oingo aldian konfiantza haundixakin bizi zan orduan jentia, kantu ederrik eta hor miradorian jarri tta ze hutsakin barre haundixak eiñ tta kantau ta, enee trankill...

23. Errekan arrantzan

- **Erref:** BER-060/043
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:56:29. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Errekan arrantzan umeak zirenean. "Harratzia" (harresia). "Esparbela". Barbo asko, aingirak, loinak, ezkailuak ere egoten ziren ura hazten zenean.</p>

Transkripzioa

- Errekan harratzixa ta harrapau loiñia ta...
 - Errekan peskan danak!
 - [Loiñadia eten baekua]!
 - Zelan esan dozu?
 - Harratzixa [egoten] zuan.
 - Harratzixa zeri esaten jakon?
 - Harratzixa, ba, ibaixa, alde bittatik harrixak-eta ipini alkarren gaiñien ta zertu, ezta? Erdira ura jun deilla! Ta erdi hartan esparbela edo erreminttak egoten zien peskarakuak; haura ipini ta han harrapatzeko arraiñak. Barbua asko egoten zan ta aingirak be bai ta...
 - Loiñak be bai...
 - Loiñak be asko, ta eskailluak ura hazten ebanian ta. De todo.

24. Errekan bainatzen

- **Erref:** BER-060/045
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:57:48. **Bukatu:** 00:58:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Erreka garbiak. Bainuak. Toponimia: Haitz-luzea; haitz-zabala, goiko-kantera.</p>

Transkripzioa

- Gaur baiño erreka garbixaua bieko zan.....
 - Bai ez ez ez- orduan ezan orduan ezan errekan zikiñik....
 - P.: Oñ aiña ezuan eongo oñ aiña zikinkeiza....
 - Orduan bañau ta dana eingo ziñaten errekan...
 - Errekan bai, erreka, ibaira bai ibaira gu be bai...
 -P.: Or beian bajaok ba, Otzalai parian, Aitzluzia esate jakoa, Aitzluzia ta Aitz-zabala zuan ta bestela, Kanterara orduan Ponportia, ezta pentsau be amen e beti erreka aundixan gure denporia or jun zuan, igarixok eta ortxe ikasi, igarixan da dana, ementxe zubi parian be bazuan zulo unatxo bat, or be ume mordua ibiltze giñuztan ta an Aitz-zabalian da Aitz-luzian bueno....

25. Ezin beti eskolara joan

- **Erref:** BER-060/049
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:03:57. **Bukatu:** 01:06:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Eskola kontuak. 3 urtean baino ez zen joan eskolara. Baserrian lan asko zegoen eta ezin beti eskolara joan.</p>

Transkripzioa

- Eskolan zenbat urte ein ziñuzen Anizetak?
 - Ez dakit ba, zazpi urtekin edo hasi giñan ta...
 - Aitta ei jauken oso eskola zalia. Eskola bialtzen...
 - Bai eskolaa bialtzen ona, zenbat eingo nittuan nik, hiru bat urte, ta len esan douna kriara????
 - Atsaldetan bakarrik, asko ezin ba ein.
 - Ba orduan pasatzen zan basarrixan, gaur ittulia dao ta gaur ezin leike ta, bihar beste zeoze da ta...
 - Ba zenbat lan eoten zan orduan, ardi-zaintzia ta ganau-zaintzia, ittulia, ta umia... bueno...
 - Umia eten barek lepuen...
 - Ardixa orduen hemen baserri danetan zan ardixa...
 - Bai, Irabanen bai behintzat, gurien Olan ardixak, Mekoletan bixetan ardixak, Azkortetan ardixak, gero gurien kendu zittuen, mendi danak ardiz beteta, ta ezebe jateko, orduan ardixa, oin be asko dao baiña, orduan ardi bareko etxeik ez, baserririk...
 - Noa ataratzen ei jittuen hainbeste ardi?
 - Bai, labratzia, labrau eingo zien terreno danak ta, udan mendira botatzen zien ala?

- Mendira bai...
- Nora botatzen zien Irabanen, Paola aldera edo?
- Iraban, Laudatzkuak eta Paola aldera, ta behekuak hortxe Azkortetatik Galatzaa bittarte Agarre aldea hortxe.
- Gaur baiño paori ta txara gehixao izango zan da keizpe izango zan hor udan ezta?
- Orduan´e, soro ta ganauak be kanpuen ibilltten zien, ta dana erremaria, dana erremaria zan orduan, bide danetan, ataira etorriko bazan, bestela ganau mordua nunbaittekuak, ganau????? Seguru etorten zien ta gaiñea erropak jan...
- Erropak be jan, aukera ederra eongo zan da erak jan ta kitto...
- Bueno baiña, pastua baeuan, pasto klasia, bedar klasiak eitte ei dau hori, erropak jateko gogua eitten ei jaue...
- Bai liñua bazeuen pentsa eizu ba, erropetan be liñua dana...
- Galatza aldeko mendi ori askoz be pobria izan be, beste aldia askoz be bedartsuaua da, Laudatz aldia, preskuaua askoz´e...

26. Belar klaseak

- **Erref:** BER-060/051
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 01:07:06. **Bukatu:** 01:07:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Belar-klaseen izenak: belar pobreaki "almitza" esaten zioten. Belarra ondu egiten zen urtero.</p>

Transkripzioa

- Ze bedar klase zeren?
- Bedarrak... ba! Bedar pobria, almitza esaten jakon. Almitza. Ta bedarrok, ba... lurretik urtetzen daben mardo-mardue izen ezker, hori lur klasiak asko eitten dau ta, ze lur klase dan...
- Bedarra ondu-ta eitten zan orduan?
- Bai. Horixe! Horixe bai. Urtero.

27. Gariaren amaigabeko lana eta auzolanaren garrantzia

- **Erref:** BER-060/052
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:07:34. **Bukatu:** 01:09:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Gariaren lana amaierarik gabekoa izaten zen: erein, simaurtu, jorratu, ebaki, metatu, zabaldu, jo. Galbahe handiak. "Txanketian jo". Auzolana.</p>

Transkripzioa

- Garixa ta, orduan lan asko jeuan basarrixan e! Garixak berak badakizu zenbat lan emoten eban...?
- Garixak, akaberarik ez dauke garixan lanak! Akaberarik ez. Erein, simaurtu, jorratu, ebai, metatu, gero atzera zabaldu ta jo... Gero dornua nere akorduan etorri zan Laudatzera, lehenago galbahia zan. Galbahe haundixak izeten zien. "Artza" esaten otsen alanbrezko zer haundi batzuk. Ta hartaraxe garbittu biher gari dana. Ya nere akorduen ekarri eben gero...
- Zela esaten otsen, "artza"?
- Bai, "artza" esaten jakon galbahe haundi hari. Ta nere akorduan Laudatzen dornua ekarri eben, garixa garbitzekua.
- Zu, ama, ta zera be bazan ba, txanketian-ta jotzen zan ba garixa?
- Txanketia bai, harrixen, harri-losak ipinita. Harri-losak ipintten zien banku luze baten geiñien, egur baten zerien, illaran Ta garixa ipintten zan euzkittan, igertzen, ta [han] hauts galantakin jo biher! Jo-ta [...] kendu!
- Gero gabien afari edarra.
- Bai.
- Auzokuek ez zien, ba, orduan be etortzen?
- E?
- Auzoko jentia ez zan ba orduan be etortzen?
- Ba, gari jotera gutxi; gari ebaitzera bai.
- Auzolana, ezta?
- Igittia esaten jakon gari-ebaitzeko sasoiai.
- Zelan?
- Igittia.
- Igittan...
- Bai.

28. Gari-ebakitze eta gari-jotzeak

- **Erref:** BER-060/053
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 01:09:20. **Bukatu:** 01:09:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gari-ebakitzea noiz. Garia jotzeko eguzki beroa behar izaten zen.</p>

Transkripzioa

- Gari-ebaitzia noiz izeten zan?
- Ba, abuztu...
- Abuztuan ez, ama, gari-ebaitzia San Martzial inguruan ez da izaten?
- San Pedrotan edo ez...?
- San Pedro-San Martzial inguruan ebaitzia.
- Bai. Ta jotia abuztuan komeni, euzki berue komeni izeten da ta.
- Enee, akordauta be... Basarriko [...ibiltzen] tratua...

29. Gaztaina klase desberdinak

- **Erref:** BER-060/054
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:09:43. **Bukatu:** 01:10:34

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Gaztaina asko. Gaztaina klaseak.</p>

Transkripzioa

- Lehen gaztaiña esan dozu... Orduan, gaztaiña asko izengo zan, ezta, hamen?

- Asko, asko! Enee... dana gaztaiña! Dana gaztaiña-arbolia. Ta klasiak. Bizkei gaztaiña esaten jakon egosi ta jatekua; oso ederra. Ta gero txapardua esaten jakon erreta jatekuari. Domu Santuetatik aurrera erreta. Baiña erreta, ez kiskartuta, e? [Malus-malusak itxi] ta oso ederrak. Ta beste klase batzuk baeren: abadiñokua esaten jakona beste bat eta... Gaztaiña klasiek.

- Gaur baiño gehixago izengo zan orduan gaztaiña be hemen, e?

- Asko, asko. Burdikadak gaztaiña sartzen zan. Burdikadak. Gaztaiñadixak haundixak.

- [Patatiakin] be egitten dan beste jatordukin, e, patatarik ez. Hori [beltza zan] gero e!

30. Bilbora neskame

- **Erref:** BER-060/058
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:14:10. **Bukatu:** 01:16:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Neskame egon zeneko kontuak. Bilboko kontuak. Sukaldari lana. Ipintzen zuten jatekoa.</p>

Transkripzioa

-Orduan zuk diferentzia dexentia ez? Esan dozu len Galatzan urtian bost duro esan dozu lehen? Ez, neskame eon ziñanian urtian bost duro?

-Pilar (alaba): Baiña hamar urte jeuzkan, urtien konformidadian...

- Ordun gaztia nintzan.

- P.: Baiña gero hillian lau duro, hori asko!

- Hiru be irabazten ebenak asko zeren ta... Neskak serbizio domestikuan mordua zain lekua sortzeko zain, ni ez nintzan eon be ein baiña, asko antxe eoten zien, han eitten zittuen haundiketxetako jabonadurak edo lixibak, ta erakusten otsen garbitzen ta erreparatzen ta. Orduan erropia konpontzen zan Jaungoikuak lagun zer, haundixek izen arren errepaso galantak. Oingo hau? Etetzen ez dan hari hau ez euan orduan ta...

-P.: Koziñera be bai denpora guztian.

-Ene! Koziñera eon ziñan?

-A, bai. Koziñeria. Señoriak esan zela eiñ da nik eiñ, makiña modutako

gauzak, bi prinsipixo, diarixo usatzen zien, da asmau ein bier ze ipini
diferentia.....

-Ta ze gauza jaten ziñuen? Ze...

-Guk oingo aldien asko.

- A. (gizona): Arrai freskue onak ezta, ama?

-Arraiña ta, okeliakin be beste milla gauza, rellenuak eta... Bueno, pipar
rellenuak eta. Fritotan be nok daki, fritotan, arrautza egosixa mesamelakin
batuta, mingaiña albardauta, sesos, mollejas, y.... mollejak be fiñak dia,
kroketak... zemat gauza....

-P.: Koziñera ona. Behin esaten dau horrek egixa e? Jeneralen prinsipixo bat
edo: ipintzen badittuzu entremes batzuk edo, ezta? Ba, baiña ordun bi
prinsipixo bihar izaten zien.

-Bi gutxienaz e? Hiru leku askotan.

-Ta hori nausixentzako bakarrik gertatzen ziñun, ala zeuek be hortitik jaten
ziñuen?

-Bai. Guri beti ixten oskuen. Guk danetik probatzen giñuan.
[...]

31. Morroiari "txandapasa"

- **Erref:** BER-060/059
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:16:50. **Bukatu:** 01:17:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Anizetaren alabak euren aita morroi egon zeneko kontuak kontatzen ditu.
Ardoa egun berezietan bakarrik.</p>

Transkripzioa

-Pilar (alaba): Gure aittak ezaban ba esaten, bera kriaue egon zan lekuan,
ardaua, bueltan baueltan pasau, paso bat.

- Nun eon zan ba?

- P.: Etxakixat, or San Juan errekan nun ero nun, esate juaun nun be, pasau,
ta mutikuei aurrera, txandapasa arei, enee, zela estendidu zeikien be,
mutiko gizajuei, ardaue, oiñ eztala ona, baiña orduen e, umiei....

- Bai baiña, oiñ karu baiña, orduan ordurako be karu....

-P.: Ori akorduan eukitze juaun arek, orduan eitte jozten ba aua, pasau
danei, bueltan bueltan ardaue ta...

- Ardaorik ez, etxien ezkiñuan eraten e, Gabonetan, Gabonetan, konpotia
be ardauekin eiñddakua, eta Kofraixetan da kitto....

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com